

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gauegiz-Arteagako Udala****3/2019 zenbakiko Kreditu Gehigarriaren bitartez Aurrekontua eraldatzea**

Udalbatzak, 2019ko apirilaren 1ean egindako ez ohiko lan saioan, 3/2019 zenbakiko Kreditu Gehigarri Espedientearen hasierako onespena erabaki zuen.

10/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoa betez, espediente hori jende aurrean egongo da ikusgai 15 egun balioduneko epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horren barruan interesdunek aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte Udalbatzaren aurrean.

Kreditu Gehigarri Espedientea behin betiko onetsita dagoela ulertuko da aipatutako epe horren barruan ez bada erreklamaziorik aurkezten.

Eta horrela argitaratzen da, guztiek horren berri izan dezaten eta bidezkoak diren ondoreetarako.

Gauegiz-Arteagan, 2019ko apirilaren 8an. — Alkatea, Juan Felix Naberan Ozamiz